



PRENTSA-OHARRA

Lehenbiziko aldiz, Zinema eta ingurumeneko *Ecozine* jaialdiaren zati bat Iturramako Civivoxean eta Golem Baionako zinema-aretoan ospatuko da, maiatzaren 8tik 19ra

Lau film luze proiektatuko dira, doan, eta gazteendako atal bat egongo da, DBHko, prestakuntza-zikloetako eta Batxilergoko ikasleei zuzendua

Zinema eta ingurumeneko *Ecozine* jaialdia Iruñera etorri da lehenbiziko aldiz, eta horren barruan zenbait proiektzio egingo dira, maiatzaren 8tik 19ra, Golem Baiona zinematokietan eta Iturramako Civivoxean. 2008az geroztik, jaialdi hori urtero egiten da Zaragozan, ingurumenarekin lotutako ikus-entzunezko ekoizpenak –hedapen urria dutenak– hedatu eta sustatzeko asmoz, horien zabalpena handitze aldera, hala Espainian nola nazioartean.

Ecozine Kultur elkarteak eta Zaragozako Udalak antolatutako jaialdiaren egoitza bihurtuko da Iruña, eta hori horrela, lau film luze proiektatuko dira atal ofizialaren barruan, eta film laburren zenbait saio egingo dira, gazteen atalean, DBHko, prestakuntza-zikloetako eta Batxilergoko ikasleendako. Atal ofizialeko saioak Golem Baiona zinematokian izango dira, maiatzaren 16tik 19ra, 20:00etan, doan, betiere gonbidapenak aurrez hartuta; gazteen atalerako, ikastetxeek aurrez eman beharko dute izena.

Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Armando Cuencak, Zaragozako Udaleko Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko zinegotzi Teresa Artigasek, Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko zuzendari Camino Jasok eta jaialdiaren zuzendari Pedro Piñerok aurkeztu dituzte *Ecozine* jaialdiaren edizio honek Iruñean programatu dituen jarduerak. Jaialdiari buruzko informazioa <http://festivalecozine.es> webgunean ere kontsulta daiteke.

Atal ofizialeko programazioa

Atal ofiziala herritarrei, oro har, zuzenduta dago, ingurumen-arazoak eta zinema elkarri hurbiltzeko. Lau film aukeratu dira Iruñean proiektatzeko, eta behin filmak ikusita, topaketa egingo da gonbidatuekin (zuzendariak, errealizadoreak, etab.), zeinek filmean ikusitakoa iruzkindu eta azalduko baitute.





Emanaldiak maiatzaren 16an, asteazkenarekin, abiatuko dira, *Gli Anni Verdi* ekoizpen italiarrarekin; adineko pertsona batzuen istorioa da, zabortegi ilegalak eta lurren gaineko utzikeria –ingurumenari dagokionez– salatzeko egiten duten borrokari buruzkoa. Italieraz emango da, gaztelaniazko azpiztituluekin. Maiatzaren 17an, ostegunarekin, *Ara Salvaje* filmak ikusleengana ekarriko du Ara ibaia, Pirinioetako azken ibai basatia. Gaztelaniaz proiektatuko da, euskarazko azpiztituluekin.

We must be dreaming ekoizpen portugaldarra maiatzaren 18an, ostiralarekin, jarriko da ikusgai, portugesez, gaztelaniazko azpiztituluekin. Hiru brasildarren eguneroko bizitzan murgilduta, dokumental honek ikertzen du zer nolako eragina izan duten planetako kirol-ekitaldi nagusiek Rio de Janeiroko herritarren bizitzetan. Azken saioan, maiatzaren 19an, larunbatarekin, *Dusk Chorus* dokumentalaren txanda izango da. *Fragments of Extinction* proiektua garatzen ia 15 urtez ibili den David Monacchi soinu-artista, ikertzaile eta konpositore akustikoaren lanaren parte bat islatzen du filmak, ikusleak murgilduta Ekuadorreko oihaneko soinu-paisaiatan. Film luzean italieraz, ingelesez eta gaztelaniaz hitz egiten da, eta gaztelaniazko azpiztituluekin proiektatuko da.

Gazteen atala, DBHko, Batxilergoko eta prestakuntza-zikloetako ikasleendako

Jaialdian gazteen atala egongo da, DBHko, prestakuntza-zikloetako eta Batxilergoko ikasleei zuzendua, zeinean Iruñeko ikastetxeek lehentasuna izango baitute. Saioak goizetan izango dira, 12:00etan, doan, Iturramako Civivoxean, maiatzaren 8tik 11ra, eta aurrez eman behar da izena. Erreserbak egiteko, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan, educacionambiental@pamplona.es helbide elektronikoaren bitartez edo 948 42 09 84 telefonoan. Maiatzaren 8an eta 9an saioak gaztelaniaz izango dira, eta maiatzaren 10ean eta 11n, euskaraz.

Argitaratu gabeko film labur batzuk ikusita, ikasleak informatu eta sentsibilizatuko dira gure eguneroko azturek ingurumenean dituzten ondorioen gainean, eta ulertaraziko zaie ondorio horiei irtenbidea ematea ere norberaren esku dagoela. Horrez gain, ikasleek parte hartuko dute proiektatuko diren film laburren artean Ikusle Gazteen Saria nori emango zaion hautatzeko prozesuan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 3an

